

ARAGOI'KO TOKI-IZEN EUSKALDUNAK ERDIARO GARAIEAN 893

Onoko sarrera au ezarri dio Antonio Ubieto Arteta'k larruki oni: "Fortún Garcés, rey, señala los términos del monasterio de San Julián de Labasal, por invitación del Conde de Aragón, Galindo.

Eta onela asten zaigu larrukia bera: "In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Hec est carta de illo termino de Lavasal monastrio, quomodo partivit illo rex Fortunio Garcianes... quarto décimo anno pstquan Carolus rex venit in Hispania".

Latiñez apurño bat besterik ez dakitenek ere oartu zaizkit noski lerro oiek izan dai-tekean latiñik baldarrenaz idatziak datoztela. Altagutziz, ulerterrezak beintzat badi-ra-ta, gure esker ona irabazia dute; erdiaro garaieko idazkietan ez bait dira, sarri aski, orren adi-errezak izaten.

Ona zer esan nai duten: "Aita'ren Semea'ren eta Gogo Deuna'ren izenean: Au da karta (itz orrek "dokumentu" esan nai du) Karlos erregea (Frantzi'ko III'a, izengoitiz "Xinplea" (879-929) Españi'ra etorri zanez geroko amalaugarren urtean Labasal'ko lurrak Fortuño Gartziarena erregeak nola banatu zituan esaten duana". Asarre bait zebillen LABASAL'ko lekaidetxea inguruan zeuzkan Bonies, Tolosana ta Orrios erri-txoetako lurrak beretzat eskatuz. Bereak omen zituan bâ erri oiek sortu ziranez aurre-tik ere: quando nondum adhuc erant illas villas populas".

Ez zitzaion Errege naparra txarto portatu. Lendik ere ez zitzaizkion Iruña'ko erre-geek Aragoiko lekaidetxe euskaldun maitagarri orri gaizki portatu, eta ez zaizkio gerontzean ere oker portatuko. Andik larogei ta lau urtera, 947'an, TOTA zeritzan erregiñak, ordura ate ARDANES'ko elizari ordaintzen zitzaizkion amarrenak-eta-lenenzituak eman zizkion:

Ikus Erregiñ beraren itzak: "Igitur sic do et offero Deo (¿et?) Sancto Iuliano de Labasali monasterio ego TOTA regina, matre de Garcia Sangonis illa decima et pri-micia de tota illa laboranza que laborant homines de Ardenes".

Ez zan erregiña ere latindun yayoegia. Gaiñera, Sangonis idatzi zuan Sancionis idatzi bearrean, eta Labasal genitibo edo noren-eran idatzi nai ba`zuan "Labasalis" zuan idazkera edokia, eta ablatibo edo nongo-era erabili na ba`zuan "Labasale".

Urte berortako beste larruki baten bidez erregiñ orren semeak, Garcia Santxore-na Iruña'ko erregeak ("ego Garsia Sancionis rex Pampilone") emaitza bat egin zion Labasal'ko "Sancto Iuliano"ri. Dokumentu ori apokrifoa da, naiz esana dugun bezala apokrifoa ere zaramategira jaurti bearra izan ez, egiaren zati ederrak gorde dezaz-ketelako.

*

Azkeneko idatz-aldi ontan ZARAMATEGI itza erabili dut gaztelerazko "lugar de basura" edo "basurero"ren esannaia euskeraz emateko. ZARAMA bait da "basura" adierazteko euskerak duan itz bakarra. "Ondarra", "zaborra" "ondakiña", "zakarra" "zikiña", "sastraka", "zatza" eta auen antzeko itzak ez dira "basura". Ez dira usai txar-reko gauza nazkagarriak. ZARAMA, bai.

Itz ori Bizkai'ko euskerarena da, baiña Bizkai'ko euskaldunen artean zearo galdua. Soilki toponimiak (oso-osoan euskeraz, bizkaieraz, itzegiten zuan Bitori'ko auzo zabal batek ZARAMA deritza) eta Bilbao'ko gaztelerak gorde digute oraindik bizirik, entzuna bait naiz Bilbao'ko Rekalde deritzan kalezabaleko andre bati bere semeari "txikito echa ese papel a la bolsa de la sarama" esaten; eta Basauri'ko injiniero nere lagun bati Pradera'tarren olean bere langille-talde bateri: "eso no vale para nada tiradlo a la carreta de la sarama".

Badut zalantza... len ere ortaz mintzatua ez ote naizen... Orrela ba'litz, barkatu eidazu, irakurle, oraingo bir-mintzaketa au. Baiñan egia diozut: ez nago damaturik: atsegiña izango bait litzaidake itz txukun polit ori, ZARAMA, bizkaitarren eta euskaldun guztien eguneroko izketan berbizturik ikustea.

*

Dokumentu apokrifoei-buruz, onoko auxe birresan gura nuke: batere garrintzirik gabeak ere badirala. Baiñan oiek ere merezi dutela gure eraspena, bai mende illunak-zear gugararaiño iritxi diralako, bai idatziak izan ziran denborako edo lekuko kulturik-eza adierazteko balio dezaketalako, eta baita gure ondorean, guk gaur ikusten ez diegun baliozko zerbait, gu baiño azterlari erneago batek ikusi dezaiekelako.

Bakarra ezagutzen dut nik alde guztietatik ustela dan apokrifoa, (apokrifu ustel guztien usteltasunean txapeldun! Nik orain darabilkidan Peña'ko kartulario onen asieran agertu oi da. Ikus bere ustelkeriak:

Idazkeraren itxuraz, XIII mendean idatzia iza zala dirudi. Dokumentuak berak, ordea, VI mendekoa dala diosku. 570'garren urtean Alariko erregeak idatzia.

Gezurra. Urte ortako ta mende guzi ortako dokumenturik, Euskalerra osoan, bat bakarrik ere ez dugu. Mende ortan, berriz, Euskalerra zan bere bi aldeetatik Auñamendi osoa, Lurrat'ltsaso ber-beraraiño!

Gezurra baitare Alariko'k idatzia izan zalako ori. Alariko au, bisigoten II Alariko, Frantzi'ko erregeetako bat izan zan, VI mendean bisigoten erreñua, uri nagusia Garona-ibarreko TOLOSA zuala, Auñamendiaren iparraldean egon bait zan. Ez zan gaiñera katolikoa ariotarra baizik, erejea. Katolikoan aurka aski zakarra ta gogorra izan zana. Ori-zala-ta, ain zuzen, erreñu artako katolikoan eskariari erantzenez frankiarren erregea, Klovis, –Klotis erregiñ Donearen senarra–, Paris'tik etorrita sartu zan, gudari, Tolosa'ko bisigoten erreñura. Vouillé'ko zelaiean, 607'an, alkar jo zuten frankiarrek eta bisigotiarrek.

An il zan II Alariko. An izan bait zan porrokatua bere gudaroztea. An amaitu zan baitare Bisigoten Frantzi'ko erreñua. Vouille'z gero, Frantzi'tik Españi'ra jaurtiak izan ziran. Auñamendi'tik Rodano ibaia arteko itxas-ertz estu luzea bakarrik, Septimania, gelditu zitzaian an. Ez ziran kukildu eta erreñu berri bat osotu zuten Katalauni'n, Lais-ter Españi osora zabalduko zuten Erreñu Bisigot Españiarra.

Ordura arte, euskaldunen bisigotekingoa arazoak iparrean izan ba'ziran, une ortaz gero egoan izango dira. Aurrerantzean gure Asaben iparraldeko arazoak, arazo gogorrak, frankiarren aurka izanen dira.

*

570'ko larruki apokrifu orri-buruzko jardunketa luzeegi au bukatzeko esan deza-
gun

– Urte ortan II Alariko'k irurogei ta iru urte bazeramazkiala illobiraturik.

– Urte ortan Labasal'en lekaidetxerik ez zala. Bakarti edo anakoratak bai, badai-
teke, Araba'n beintzat bai bait ziran, eta Araba bezain Euskalerra bait zan Ipar-Ara-
goia.

*

Ikus orain emen larruki onek dakarkigun toponimi edo toki-izendia:

LABASAL
IATI
BARRAKARI
ISPAIA
LAVASALES
TORRENTE
SANCTI STEPHANI
GALIAS

BINIES
ARBATIN
SUENGA
TOLOSANA
ARAGON
PAMPILONA
GALLECIA
BALLETERRA
ARAGON

BUBALO
BERALE
LASISERUI
ORRIOS
ISUE
SABBATERA
PALIARES
OSCA

*

Bañan...bañan-bañan!...izen oiek danak euskaldunak ote dira? galdetu dezaidakit irakurle bat edo batek arriturik.

Irukoitza izango da nere erantzuna:

– Idatzirik agertzen zaizkigun bezala, Ez. Idatzirik dakuskigun bezala ogei ta zor-tzi izen oietatik ez dugu bat bakarrik ere izen euskalduna.

– Baña astiro ta abots aundiz irakurtzen ba'ditugu bati baiño geiagori entzungo diogu bere baitan daraman euskeraren doiñua.

Izen oiek toponimoak, ots, toki-izenak diralarik, zeunden TOKIA osoki ta zearo EUSKALERRIA zala gogora ba'dakarkigu, izen oiek, DANAK dirala jatorriz euskaldunak oi u egin bear ko dugu, naiz amairugarren mendeaz geroko lumalari erdaldunen eruz, gugana trakesturik eta erdi-erderaturik iritxi.

Ez dezagun sekulan aztu erdiaroan Ipar-Aragoia, Salduba edo Zaragoza beraren ingurutik gora, dana "monolingüe" zala, ots, "ele bat bakarreko lurra", eta ele bat bakar ori EUSKERA zala.

*

Asi gaitzen orain, banaka-banaka izen moldakaitz oiek aztertzen. Ez goaz oien etimolojiaren billa. Soilki, gure saiaketa au, izen oien euskal-doiñua agirian ipintzeko egiña izango da, eta, al dugunean, berrietako bakoitzaren egiazko euskal izena zer izan ote zitekean asmatzeko.

* * *

LABASAL. Batzuetan "V"z, baiñan "B"z geienetan, bearrezkoa dan bezala. Jazetani'ko erri txiki baten izena zan. Gaur ezabaturik dagoan erriska orren izenetik jaso zuan berea, larruki ontan goersten dan Julen Deunaren lekaidetxeak: MONASTERIUM SANCTI IULIANI. Ez da arritzekoa, beraz, larruki auetan ozen ori, Labasal, ain aipatua izatea.

Labasal'ko au izan zan euskaldunok XI mendeaz aurretik Aragoi'en izan genituan lekaidetxe maitagarri zar aietako bat. Ez dakigu zenbat izan ziran, Labasal'ko au eta beste iru bakarrik bait ditugu ezagunak: Zilla'koa, Zertzito'koa eta Fontfrida'koa. Seguruaski izan ziran geiago ere, ori adierazten digu beintzat larruki auek aski maiz egin oi duten, –Peña'koa ez dan eta non zegoan ez dakigun– Yondoniane'ren lekaidetxe baten aipuak.

Ubieta Arteta'k begi zakarrez so dagie lekaidetxe onuragarri auei, eta "serie muy pobre de monasterios altoaragoneses", dasaie. Ez du arrazoirik. Badaiteke lekaide-txe aiek diruz txiroak izatea baiñan arras aberatsak izan ziran donetasunaz eta kulturaz, inguru artan ibilli zan Kordoba'ko EULOJIO Donea lekuko edo testigu dugula. Lan aundia egin zuten erriaren sinismena sendotzen, eta beren inguru aietako nekazari, aberezain eta eiztari euskaldun –oraindik aski basati– aiek kristau-kulturaz jaz-

ten. Irabazi zuten Iruña'ko erregeen eta Aragoi'ko konteen maitasuna, eta begirunea. Esaten ari geran onen alde, larruki berauek ditugu lekuko.

*

LABASAL itzaren ikerketa errezteko, zatitu dezagun bitan izen ori: LABA-SAL eta LA-BAS-AL.

Aurreneko zatiketan "SAL" zer izan daitekean igartzen izango ditugu lanak. "LABA" maiz agertzen da Euskalerriko toponimian. eta bere erdiko "BAS" orrek "baso" esan nai du. Eta aurretik "O" bat galdu zaio. Orrela, adibidez Naparroa'n Iruña'ren inguruko toponimo auetan "Labaso" ta "Labasoa", beren aurreko "O" izkia galdu duten "Olabaso" eta "Olabasoa" dira.

Konponketa orrek gaur egungo euskal-toponimiko beste izen askorentzat ere balio dezake, baiña Labasal'entzat etimologi aulegia eta errezegia iduritzen zait, naiz ain sarritan aipatua izan, ez bait da beiñere "Olabasal" idatzirik agertzen.

Beste batzuetan Labasal'en "LABA", gure toponimiko izenetan LABA –gipuzkeraz LABE, gazteleraz "HORNO"–, dala dirudi. Adibidez Naparroa'ko Mendigorri'n dagoan "Labase" edo, seguruaski, "Labatse", esannaiez "Labategi": ("lugar de hornos"). Itz orren senideak dira Naparroa'ko LABAZAR eta LABAZARRAGA (Araba'ko Barrundi'n), eta zer esanik ez "LABE"z asten diran LABEKOA Aretxabaleta'n), LABEKOETXEA (Irun'en). eta bi oien antzeko toponimoetan.

"SAL" da aztertzen ari geran larruki ontako Labasal'en azken-zatia, Euskalerra eta berriko toponimian sarrienik agertzen dan itzetako bat. "Salbidea", "Salburua", "Salesormendi", Araba'n; "Saleta", "Saldultza", "Salditze", Naparroa'ren iparraldean; "Saldurtun", "Saldain", "Salharet", "Saldubehere", Laburdi'n; "Saldaki", "Saldun", "Saldisse", Zuberoa'n; "Salitze", "Saletxe", "Saldumendi", "Saltarain", Guipuzkoa'n.

"SAL" zer dan ez dakigu, baiñan itz euskalduna dala ezpaiean ipintzerik ez dago. Etimologilariak asmatu dute askapen bat baiño geiago itz orren misterioa zabaltzeko. Danak baliorik gabeak. Errezagoa eta garbiagoa da itz orrek zer esan nai duan ez dakigula aitortzea.

*

Ele zarra da gure elea. Naitanaiez izan bear ditu bere iztegian zentzua galdurik irixi zaizkigun antziña-antziñako itzak. "SAL" au adibidez. Beste bet "ORO" (Oronoz). Edo "OKA" (Okarizketa) beste bat. "ORI" (Orisol) beste bat..

Noizkoa ote dugu bâ gure Euskera maite au? Gaur edestiauurrelari batzuk euskeraren iztedi, gramatika ta senari jaramonik egiteke, 3.000 urte damaizkiote. Atzo 10.000 ematen zitzaizkion, eta eranegun 20.000.

Arritzekoa da, baiña euskeraren antziñatasuna ta zaletasuna moztutzen ta gutxiatzen ari zaizkigu, Euskal-Unibersitatietatik irtetzen zaigun gaztediaren españiartasuna aunditzen dijoakigun neurrian. Guri, ¿euskaldunoi kostatzen zaigun dirua beste euskaldutasunik gure unibersitate oiek? ¿bai ote dute?.

Maiz joaten nintzan Ataun'go bere Sara izeneko etxean zaaturik bizi zan On Joso Migel Barandiaran ikustatzera:

– Aizu, Joxemigel: gure leitzeetako piztiak margoztu zituzten gizon aiek ¿bai ote zekiten euskeraz?

– "Bai, –erantzun zidan zalantzarik gabe–. Euskaldunak ziran. Guk ez genien uler-tuko baiñan oartuko giñan euskeraz ari zitzaizkigula".

Nerekin ikustaldi artara joan zan Joxe Karrera, Bitori'n bizi dan ola-gizon eibartarra da itz oien egiztasunaren lekuko.

Beraz On Joxemigel'ekin eta euskeraren "AITZkora", "AITZurra", "AITZtoa" bezalako paleolitik-itzekin bat dabil, Euskera paleolitiko edo arri-aro-zarrean sortu zala uste duana.

Eiztari besterik ez ziran arri-aro-zaarreko euskaldun aiek, nekazaritzan ez zekiten, aberezaintzarik ez zuten ezagutzen. Zaldiak margozten zituzten. Pillaka Ekain 1go leizean: (soilki jakirako gura zituzten zaldiak!, abereak ezitzen ez bait zuten oraindik ikasi.

"Oartuko giñan euskeraz ari tzitzaikigula bañan guk ez genien ulertuko" ¿Nola, bâ, guk ulertu, soilki-eiztari-uts ziran euskaldun aiek batez ere beren eginkizunetarako zentzu bereiziz orniturik sortu zituzten itzez eraturukato elea? Gero, neolotiko edo arri-aro-berrian euskaldunak, nekazari, aberezañ, lur-ontzigille ta meatzari biurtu ziran, ta bizi era aldatu zan eran aldatu zan euskaldun aiek mintzatzen zuten euskerara ere, orain beren eginkizun berrietarako bearrezkoak zituzten itz berriak sortzen zituzten neurrian paleolitiko itz aiek zentzua galtzen eta azkenik zearo ezabatzen ari izan bait ziran. Baiñan itz aietako batzuk, naiz agian ordurako beren zentzua galdurik izan, gugararaiño iritxi zaizkigu millaka urteak zear.

*

Labasal itzaren bigarren zatiketa onela egin dut: LA-BAS-AL. ¿Zer ote da "LA"? Maiz agertzen da gure toponimian baiña beti izen beraren osagarri bezala; beiñere ez aurizki bezala. Gaztelarrek maiz oker idatzi oi dituzte "LA"z asten diran izen oiek: "La Rea", Larrea'ren orde. "Las Artes" (Lasarte), La Tasa (Latasa), La Tierro (Latiegi nere abizena). La Zurriola, Donosti'ko Lazurriola (Latzurriola, barkatu, iakurle, = ¿Latz-arri-ola?)¹. Eta asko geiago ikusi ditut nik orrela idatzirik.

Labasal'en, "LA" ori ¿zer ote da? ¿"O" bat galdu duan "Ola"? Baleike, baiña ez dut uste. Ez bait da beiñere bere aipu ugarietan OLABASAL idatzirik agertzen.

Ta, ¿zer ote da BASA-L? Baso-ar? "O"z amaitzen diran itzetan azkeneko "O" ori "A" biurtu oi da bâ, itz oiei atzetik best itz bat alkartezn zaienean: adibidez, asto+buru = astaburu, mando+zain = mandazain, arto+lasto = aratalasto, garo+di = garadi... "Olabasoal" itz ortan Aurreko "OLA" atzizkia ez dalako eraikiñ edo konstrukzio bat izango litzake eta bere azkeneko "AL" ori euskerazkoa ez baiña gaztelarazko atzizkia dalako, lumalari arroz baten ekintza izan daiteke. Edo ta, "AL" biurtutako "AR" bat ote dugu.

Askotan gertatu zaigun biurriketa izango litzake. Asko dira gure tokiizendegian eta gizaizendagin "AL" aurizkia daramaten izenak; adibide lez:

ALkorta (Abizena), ALkiza (Gipuzkoa'n toloaleko erria), ALamarrogaña (Araba'ko Kontrasta'n), ALagrabida (Agurain XVII mendean), ALantone (antzina'ko erri baskoia). ALaone (Mauritarrek ezin artu izan zuten eusko lurraldea (III Alfotso'ren "Kronika"n. 866 -909>. ALar (erromatekoan Sasijainko euskalduna).

*

Aurretik "AL" daramaten izen oietako batzuetan "AL" ori zer izan daitekean... ez dakit. Edesti aurretik zentzua galdurik iritxi zaigun aurizki bat ote da? Beste batzuetan len "AR" izan zala, eta itzezin-da-itzezin, nekerik txikienako lrgearen araur "AL" biurtu dala dirudi: "Al-korta = Ar-korta; Al-andi = Ar-andi; Al-baina = Ar-baina; Al-belda = Ar-belda... Altamira = Artamira... ta orelako beste batzuetan, "AL" ori, "AR" da ezparirik gabe, Bizkai'ko etxe batean aukitun nuan larruki batek egizatzen digunez.

¹ Beti basatia eta, orain txukundu duten arte, itxasoz izugarri gogorra izan dan ondartz donostiar orren izena, LAZ-URRI-OLA bezala ere erabaki daiteke. "OLA" toponimo bezala atzizki toki adierazlea izan daiteke (Urkiola = "abedular", Arriola "Pedregal", Urola = "Aguazal"). "URRI" itz ezaguna dugu, gaztelaraz "escaso". Beraz, URRI-OLA "lugar escaso de..."izango litzake. ¿Zertan "toki urria? Galde orri erantzuteko "LAZ" zer izan daitekean jakin bearko genuke.

Larruki ori aski zarra da: 1408'koa, Gipuzkoa'ko Leniz eta Araba'ko Aramayona'en arteko mugen berri emateko idatzia. Maiz aipatzen da, bertan bi aran oien artean dagoan larre, eta iturri, eta ibaitxo baten izana: ARBINA. "R"z beti: ARBINA.

Lau mende geroago, XVIII'eko eskriauren batek "R" ori, goora luzatuz, "L" biurtu nai izan zuan, baiñan, XVIII'eko onek erabili zuan tinta, XV'go ark erabilitakoa baiño akoz aulagoa izaki-ta, ederki agertzen da oraindik "L" ustelaren azpitik leenagoko "R" tinko zar ura.

Naiko goiz asi zan gure itzetako "R" zarra "L" biurtzeko joera. Orregaitik, aurretik "AL" daramaten itz asotan "AL" ori "AR" dute jatorriz.

Beste batzuetan "AL", itza beraren silaba bat izan daiteke. Adibidez "ALTZA" erre-kondoko zagaitz ezagunaren izena daramaten izenrtan: (Alsasua = Altzatsu" Napa-rroa'n; Altzaga eta Altzugarai, Gipuzkoa'n...).

*

Luze noa. Ta orrelako itz-jario luzearen ondorean, lotsagarrierna, Labasal itzaren etimologia azaltzeko, gai izan ez naizela aitortubearra dut. Baiña itzaren euskalduta-suna, bai, naiko argi utzi det, eta zalantzrik gabe aldarrikatu dezaket, Aragoi euskal-dunean itz ori euskalduna izan dala beti.

Zati eder bat gelditu zait oraindik aztertzeke. Baña, idazki-mota auek ez oi dira irakurtzeko miate-kontuak bezain atsegiñak izaten-eta, onozkero aspergarri biurtu naiz irakurleentzat. Ta ori orrela izanik, aldizkari onen urrengo zenbakian amaituko dut peiten zaidan ori.

Latiegi ta Eraso'tar Bixente.